

*Caperucita*

CAMINA

*Sola*

LA REINTRODUCCIÓN DE LA INFANCIA EN LA CIUDAD



*Caperucita  
camina  
sola*



MINISTERIO  
DE MEDIO AMBIENTE  
Y MEDIO RURAL Y MARINO

SECRETARIA DE ESTADO  
DEL MEDIO RURAL Y AGUA

PARQUES  
NACIONALES

CENTRO NACIONAL  
DE EDUCACIÓN AMBIENTAL



Coordinación:  
María Sintés Zamanillo

Producción:  
Gea21 – Grupo de Estudios  
y Alternativas S.L.

Idea original y textos:  
Marta Román Rivas

Diseño de la exposición:  
Nuria Román Rivas

Ilustraciones y Diseño Gráfico:  
Pablo Delkan

Fotografías:  
María Roldán Pazos,  
Alfonso Sanz y Óscar Ortuño

Soportes y estructuras:  
Germans Martí Hidalgo (Menorca)

Impresión:  
Gilca S.L. (Madrid)



ÉRASE

UNA

VEZ



# BAZEN BEHIN

Neska txiki baten istorioa da hau. Txanogorritxu deitzen diote, belusezko txano gorri bat daramalako, amonak egina. Txanogorritxuk bederatzi urte ditu, bi hanka sendo, bi begi erne eta beti taupaka duen bihotza. Badaki irakurtzen, idazten, sokasaltoan ibiltzen, pedalei eragiten eta internetetik nabigatzen, baina bere adineko haur gehienei gertatu ohi zaien bezalaxe, inoiz ez diote etxetik bakarrik irteten uzten.

Gurasoek diotenez, hiria oso leku arriskutsua da eta ez diote kalean jolasten ezta bere kasa eskolara joaten uzten ere. Eskutik helduta doa beti, ez da baldosak zenbatzeko gelditzen ezta bidetik urruntzen ere eta, parkean jolasean dabilenean, pertsona heldu bat du beti bera zaintzen.

# ÉRASE UNA VEZ

Esta es la historia de una niña a quien llaman Caperucita Roja porque lleva una caperuza de terciopelo rojo que le ha hecho su abuela. Caperucita tiene nueve años, dos piernas fuertes, dos ojos atentos y un corazón que late. Sabe leer, escribir, saltar a la comba, pedalear y navegar por internet, pero al igual que le sucede a la mayoría de niñas y niños de su edad, nunca le dejan salir sola de casa.

Sus padres dicen que la ciudad es un lugar muy peligroso y no le permiten jugar en la calle ni ir al colegio por su cuenta. Va siempre de la mano, no se detiene a contar baldosas, ni se aparta del camino y, cuando juega en el parque, lo hace bajo la mirada vigilante de una persona mayor.

Capercucita  
¿dónde  
estás



# **TXANOGORRITXU, TXANOGORRITXU, NON ZAUDE?**

Txanogorritxu amatxorekin dago etxean, ez dakigu ordenagailuaren aurrean ote dagoen, telebista ikusten edo etxerako lanak egiten. Jakin dakiguna zera da, orduak eta orduak ematen dituela aulki batean eserita edo sofán etzanda eta, arratsaldea iristerako, urduri eta haserrekor dagoela.

Zoriontsu hazteko mugitzea da gorputzak garrasika eskatzen diona eta esan esaten dio bideo-jokoen abentura akrobatikoek ez diotela balio berak duen indar hori garatzeko, bere muskuluak sendotzeko edo duen energia guzti hori kanporatzeko.

# **CAPERUCITA, CAPERUCITA, ¿DÓNDE ESTÁS?**

Caperucita está en casa con su mamá, no sabemos si está frente al ordenador, viendo la tele o haciendo los deberes. Lo que sí sabemos es que pasa horas y horas sentada en una silla o tumbada en el sofá y que, al caer la tarde, está nerviosa e irritable.

Su cuerpo le grita que necesita moverse para crecer feliz y que las acrobáticas aventuras de los videojuegos no le sirven para desarrollar su propia fuerza, flexibilizar sus músculos o desfogar toda su energía.

la toma

CESTA



# HARTU SASKIA

Telefonoak jo eta txanogorritxu korrika doa bere lagunen bat entzuteko itzaropenarekin. Oraingoan amonak deitzen du, gaixo dagoela eta norbaiten konpainia behar duela esanez.

Txanogorritxuk berehala eskaintzen du bere burua laguntzera joateko, jada heldua dela gogoratuz eta amari kokotseraino iristen zaiola erakutsiz. Txanogorritxuren amak, buruan zalantzak eta bihotzean beldurrak dituela, armairutik saski bat atera du eta jaki batzuk aukeratzen hasi da poliki-poliki... Ausartuko ote da lehenengo aldiz bere alabari etxetik bakarrik ateratzen uzten?

# TOMA LA CESTA

El teléfono suena y Caperucita corre a cogerlo esperando oír a alguno de sus amigos. Esta vez quien llama es la abuela que se ha puesto enferma y necesita que alguien vaya a hacerle compañía.

Caperucita se ofrece rápidamente para ir en su ayuda, insiste en que ya es mayor y le muestra a su madre que ya le llega por la barbilla. La mamá de Caperucita, con dudas en la cabeza y miedos en el corazón, saca una cesta del armario y lentamente empieza a elegir algunos alimentos... ¿Se atreverá a dejar a su hija salir sola de casa por primera vez?



CAPERUCITA  
EN LA  
CIUDAD



# TXANOGORRITXU HIRIAN

Txanogorritxu oso erne dabil. Askotan joan izan da amonaren etxera, baina inoiz ere ez bakarrik, eta gaur ez daki ziur zein den bide egokia. Duela ez hainbeste, haurrak bakarrik mugitzen ziren eta euren hiriko bazter guztiak ezagutzen zituzten. Izan ere, Txanogorritxuren aitaxo eta amatxo txikiak zirenean, denak ibiltzen ziren kaleetan jolasean afalordura arte, eta euren kasa joaten ziren eskolara.

Inork ez daki ziur nolatan gertatu zen: autoak izan ote ziren lehenak espazioaren jabe egiten hasi zirenak edo hiriak, hazi ahalazkenean soilik erraldoientzako leku bihurtutakoak. Kontua da, orain, kaleak haurrik gabe ikustean, edozeinek pentsatuko lukeela Hamelingo txirulariak urruti-urruti eramán dituela...


Eskerrak behintzat Txanogorritxu jende atseginarekin topatzen dela, amonaren etxera nola iritsi esaten dioten jendearekin, alegia.

# CAPERUCITA EN LA CIUDAD

Caperucita camina muy atenta, ha ido muchas veces a casa de su abuela pero nunca sola, y hoy duda de cuál es el camino correcto. Hace no mucho tiempo, los niños y las niñas se movían solos y conocían palmo a palmo su ciudad. De hecho, cuando el papá y la mamá de Caperucita eran pequeños, todos jugaban en las calles hasta la hora de la cena e iban por su cuenta al colegio.

Nadie sabe explicar muy bien cómo sucedió: si fueron primero los coches los que empezaron a devorar el espacio o si fue que la ciudad dio un estirón y quedó sólo para los gigantes. Lo cierto es que ahora, al mirar las calles sin niños, cualquiera pensaría que el flautista de Hamelín se los ha llevado muy lejos...

Menos mal que Caperucita se encuentra con personas amables que le indican cómo llegar a casa de la abuela.



# AUTO IKARAGARRIA

Txanogorritxuk, bide hezkuntzako klaseetara joan denez eta zirkulazio arauak eta trafiko seinaleak ezagutzen dituenek, badaki baita ere ezin dela fidatu semaforoak berde agertuta ere edo oinezkoen bideak topatuta ere. Horrexegatik dabil beti erne, badaezpada, ez ote zaion auto ikaragarria bat-batean agertuko.

Izkina baten bueltan amonaren auto berria ikusi du aparkatuta eta liluratuta geratu da ibilgailu moderno-modernoaren barrualdea begiratzean.

*Hau da hau! A ze besaulki erosoak!*

*Zu goxoago besarkatzeko.*

*Eta a ze freno potenteak!*

*Azkar-azkar eta hobeto ibiltzeko.*

*Gainera... Gainera, telebista du!*

*Zu gehiago entretenitzeko.*

*A ze airbag-ak eta a ze ateak, alboetan babesarekin eta kristal tintatuekin...*

*Zu hobeto bakartzeko!!!*

Txanogorritxu dagoeneko jabetu da autoak hiriaren jabe egin daitezkeela eta haurrak izutu eta baztertu ditzaketela. Beraz, oinez jarraitzea eta bere bi hanka sendo horiekin amonaren etxera joatea erabaki du.

# EL COCHE FERROZ

Caperucita, que ha ido a clase de educación vial y conoce las normas de circulación y las señales de tráfico, también sabe que no se puede fiar de los semáforos en verde ni de los pasos de peatones. Por eso camina muy atenta, por si aparece el coche feroz.

Al doblar una esquina, encuentra aparcado el coche nuevo de la abuela y se queda fascinada mirando el interior del modernísimo vehículo.

*¡Guau!, ¡qué sillones tan cómodos tiene!*

*Para abrazarte mejor.*

*¡Y qué frenos tan potentes!*

*Para correr y apurar mejor.*

*Incluso... incluso ¡tiene tele!*

*Para entretenerte mejor.*

*Menudos airbags y menudas puertas con protección lateral y cristales tintados...*

*¡¡Para aislarte mejor!!*

Caperucita, que se ha dado cuenta de que los coches pueden devorar la ciudad y asustar y arrinconar a niñas y niños, decide seguir caminando y llegar con sus dos piernas fuertes a casa de la abuela.

# Caperucita CAMMINA

EN



# TXANOGORRITXU ONDOAN NORBAIT DUELA DABIL

Txanogorritxu amonaren etxean dago. Kuku-erlojuaren kanpai hotsak entzun ditu eta badaki etxera bueltatzeko ordua iritsi zaiola dagoeneko. Amonari besarkada handi bat eman dio, txanoarekin burua ondo estali du eta badoa hozten hasitako arrats girora.

Txakur beltz eta argal batek bide osoan zehar jarraitzen dio. Etxetik gertu, Mateo eta Berta sumatu ditu ezkutaketan jolasean eta oin-puntetan isilpean hurbilduz haiek izutzea erabaki du. Baina postariak agurtu egin duenez ikusi egin dute bere lagunek: "Kaixo, Txanogorritxu! Jolastu nahi al duzu gurekin?" Gaur ezin da geratu, laster iritsi nahi du etxera amari izan dituen abentura guztiak kontatzeko eta irribarre egiten dion txakur beltz eta argala hari erakusteko.

Eta hau hala ez bazan sar dadila kalabazan, baina ipuin honek... bihotza beti taupaka, begiak erne, hanka sendoak eta jolasteko gogoia duten haurrak bizi diren hirietako kale, plaza eta espazio horietan guztietan jarraitzen du.

# CAPERUCITA CAMINA EN COMPAÑÍA

Caperucita oye las campanadas del reloj de cuco de la abuela y sabe que ya es hora de volver a casa. Le da un abrazo fuerte, se ajusta bien la caperuza y sale al fresco de la tarde.


Un perro negro y flaco la sigue todo el camino. Cerca de casa, reconoce a Mateo y a Berta que juegan al escondite y decide ir de puntillas para darles un buen susto. Pero el saludo del cartero la delata y sus amigos la descubren: "¡Hola, Caperucita! ¿juegas con nosotros?" Hoy no puede quedarse, quiere llegar a casa pronto para poder contarle a su madre todas sus aventuras y para enseñarle al perro negro y flaco que le sonrío.

Y colorín colorado, este cuento... continúa en todas aquellas calles, plazas y espacios de la ciudad donde hay niños y niñas con corazones que laten, ojos atentos, piernas fuertes y ganas de jugar.

# LAGUNDUKO DIGUZU?

Espanian, lehen hezkuntzako haurren %70 ez dira inoiz ikastetxera bakarrik joaten. Haurren autonomia maila izugarri jaitsi da mendebaldeko hiri gehienetan. 70eko urteetan, zortzi urteko haurren %80 bakarrik joaten ziren ikastetxera eta, 90eko urteetan, %8ri soilik uzten zieten bakarrik joaten.

Helduen laguntzarik gabe ikastetxera joaten diren ikasle ingelesaren ehunekoa.




*Txanogorritxuk bakarrik ibili nahi du berriro, lagunekin kalean jolastu nahi du, korrika egin nahi du, ezkutatu, basoan barrena sartu eta bere kasa abenturak bizi. Lagunduko al diogu hori lortzen?*

# ZĒUK KALKULATU

Espanian, bost haurretatik bat gizen-  
duta dago. **Gizentasuna mugimendu  
gutxi egitearen ondorio da**, gaizki jate-  
aren ondorio baino

Gehiegizko pisua 10 urteko aurren artean



*Kalkulatu Txanogorritxuk egunean eserita ematen duen denbora:*

- 5 ordu ikastetxean
- 30 minutu autoan
- 3 ordu telebistaren, ordenagailuaren edo beste makinatxoren baten aurrean
- 60 minutu etxerako lanak egiten
- 90 minutu jaten

\_\_\_\_\_ Guztira

*Kalkulatu zeuk egunean geldirik pasatzen duzun denbora:*


- Ikastetxean \_\_\_\_\_ min.
- Garraioan \_\_\_\_\_ min.
- Telebista, ordenagailu, wii, playstation-en aurrean \_\_\_\_\_ min.
- Jaten \_\_\_\_\_ min.
- Aulkitik altxatu gabe beste zereginetan \_\_\_\_\_ min.

**Guztira = \_\_\_\_\_ orduak**



# ZEKU AUKERATU

Espainiako hiriak oso seguruak direla esan daiteke. Delinkuentzia maila askoz ere txikiagoa da Erresuma Batua, Alemania, Frantzia baita Suediakoarekin ere konparatuta. Dena den, segurtasun gabezia handia sumatzen da eta edozein arazo, haurrei dagokienez batik bat, berez dena baino handiagoa dela esaten digute hedabideetan. Haurrak "arrisku handiko" arrazoirik gabeko giro horren biktima dira, eta egoera horrek berekin dakarrena hauxe da, haiek zorrotz zaintzea.



---

*Txanogorritxuren amari laguntzeko eskatzen dizugu, neska etxetik bakarrik irten eta lasai eta konfiantzaz ibili ahal izateko aukera emango dioten saskiko produktuak aukeratzeko garaian.*

# ALDERATU


*Baldin eta nahi badugu Txanogorritxu eta beste haur batzuk segurtasunez ibili ahal izatea*

## Zein da kale honetako arazoa?

Farolak. Hirirako baino errepideetarako egokiagoak dira. Galtzada argitzen dute eta ahaztu egiten dira oinez dabilen jendeaz.

Asfalto gehiegi. Ondorioz, autoak ez daude behar bezala aparkatuta eta dabiltzanean abiadura handiagoa hartzeko aukera izaten dute

Gurutzeguneetan aparkatzea. Horrek eragotzi egiten du oinezkoen pasabidea. Haurrak, altuera txikikoak direnez, itzalean geratzen dira auto-enganatik eta asfatora irten behar izaten dute ibilgailuren bat etortzen ari ote den ikusteko



## Zer egin daiteke kale honetan?

Gurutzegune seguruak egitea, espaloiri jarraitasuna emanaz. Zoladura goratzeak eta aldatzeak geldiarazi egiten ditu autoak

Oinez dabiltzanei lehentasuna ematea, espaloiak zabalduz.

Zuhaitzak landatzea, bidea erakargarriagoa eta atsegina izateko, udaldian batez ere.



## Zein da kale honetako arazoa?



Espaloi estua. Ibiltzeko ez da eroso eta eragotzi egiten du bi pertsona edo gehiago elkarrekin hizketan joatea edo lasai topo egitea.

Autoentzako seinaleak espaloietan daude jarrita. Oinezkoentzako oztopo bat gehiago, beraz.

Kale lerrozuzenak. Halako kaleetan gidariek abiadura handiagoa hartzeko aukera izaten dute, eta are gehiago oztopoak baldin badaude oinezkoek edozein lekutik errepi-dea ez gurutzatzeko.

## Zer egin daiteke kale honetan?

Goratutako pasabide bat jartzea. Horrek "ate" gisa balio du trafiko lasaiko kale batean sartzen ari zarelara konturatzeko.

Asfaltoaren ordez beste zoladura bat jartzea. Horrela, bertatik gidatzen doazenak konturatu egingo dira kalea ez dela soilik eurentzat eta poliki doazen pertsonak edo jolastu nahi dutenak ere espazio hori bera erabil dezaketela.

Trazatu lerromakurrak geldiarazi egiten ditu autoak. Zabaldutako espazio batean, zuhaitz batek eta eserleku batzuek "saloi" bihurtzen dute lekua, bertan esertzeko eta hizketan aritzeko aukera emanez.



# ESKOLARAKO BIDEA



*“Primeran gogoratzen dut nolakoak ziren etxetik eskolara joateko egiten nituen ibilbideak, zirrara eragiteko modukoak baitziren benetan. Sei urteko ume batentzat baliteke ondo pasatzea izatea nahi duen gauza bakarra eta hori oroimenean geratzen da betiko. Nire kasuan, nire triziklo berria zen zirrara eragiten zidana. Egunero ibiltzen nintzen trizikloaren gainean eta nire arreba zaharrena berean. Gurekin ez zen pertsona heldu bakar bat ere etortzen eta oso ondo gogoratzen naiz kale erditik biok lasterketak egiten genituela trizikloaren abiadura handia hartuta eta gero, gauzarik onena, izkina batera iristen ginenean alde batera etzaten ginen eta bi gurpilekin hartzen genuen kurba.”*

**Roal Dahl**

*“Ez nuen zorte txarrik izan nire eskolarekin, baina oroitzapen onenak, eskola urte haietako eszenak, gehien oroitzen ditudanak, ez datoz ikasgeletatik, kaperetatik, liburutegietatik eta laborategietatik, goizero etxetik ikasmahaira eramaten ninduen bidetik baizik, mundu amaigabe bateko osagai bat gehiago bihurturik.”*

**Luis García Montero**

*“Goizetan etxetik irteten naizenean, Orco bat etortzen zait nire bila, atsegin handiz agurtzen nauena, eta Sauron dorrerako bidea hartzen dugu elkarrekin. Bidean Hobbyt bat elkartzen zaigu, hitz gutxikoa bera, eta aurrerago Troll handikote bat iristen da, buruan kiribilak dituena, hau esanez “Kaixo, mutilak! Zer moduz?” Guk honela erantzuten diogu “Ondo, Troll usain pixka bat sumatu arren”. Barretxoak sortzen dira eta kale batean Gimlin ipotxa datorrela ikusten dugu, hau esanez “Legolas, ba al duzu play-joko berriren bat?” Baina ezin dut erantzun urrutitik Sauron dorreko kanpai hotsa entzuten dugulako eta ziztu bizian joaten gara Lur Ertaineko etapa berri bat hastera. AMAIERA (pelikula bat badirudi ere eskolarako bidean goizero gertatzen zaidana da eta pertsonaiak nire lagunak dira, agertu ahala ordenatuta: Paula, Irene, Uxia eta Iván). EL SEÑOR DE LOS AMIGOS”.*

**Alejandro Pertierra, 4º Primaria**





# ZUZEN

# ALA

# OKER?

# OKER

Z

O

Ibilgailuz doazenek kutsaduraren ondorioak jasateko arrisku handiagoa dute oinez edo bizikletaz doazenek baino

Hurrei dagokienez, trafikoak eragindako biktima gehienak, hiriguneetan barne, ibilgailuz eramaten dituzten haurrak izaten dira

Ibilgailuetan dauden segurtasun sistemak (ABS, airbag, segurtasun uhalak, alboko bandak eta abar) azkenean ez dira oso eraginkorrak izaten, hobekuntza horiek guztiak direla eta, gidariek jokabide arriskutsuagoa hartzen dutelako

2 kilometroko tartean bizi den haur bat jaso eta eramateak urtean 100 kg CO<sup>2</sup> emititzea dakar ondorioz.

Autoa erabiltzeak guztion osasunean du eragina, eta bereziki haurren osasunean. Arnas aparatuan gaixotasunak izateko arriskua %50eko portzentajearen handitzen da trafiko handiko bide batetik gertu bizi diren haurren kasuan.

Bideak eta aparkalekuak eraikitzeke azalera etengabe handitzen doa; alde zaharretan galtzada izateko den espazioa guztizko azaleraren %3 da gutxi gorabehera, XIX. mendeko zabalguneeetan ia %18 eta Los Angeles (Kalifornia) bezalako hirietan %59ra arte iristen da.

# ISTORIOAK

## DARRAI

### *Bizikletentzat leku bat*

Imajinatzen al duzue aparkaleku handi handi bat... bizikletentzat? Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolako istorioa da hau. Autoak aparkatzeko garaje bat egin beharrean, egunero pedalei eraginez ikastetxera datozen ikasle eta irakasleek euren bizikletak gordetzeko erabiltzen da eraikinaren azpialdea. Zortzi urtetatik aurrera, ia ikasle guztiak etorri ohi dira bakarrik ikastetxera eta aireratuta, bizkortuta iristen dira goizero. Itziarrek dioenez "Nik egunero erabiltzen dut bizikleta eta ez bakarrik ikastolara etortzeko. Beste hiri batean bizi den nire lehengusu Martinek, berriz, ez du ia aukerarik ere izan Errege Magoek ekarri diotena estreinatzeko." Bizikletak ez ezik, bizikletak erabiltzeko hiri seguruak eskatu beharko ditugu beharbada.



### *Fem un jardí*

Sara, Marina, Jennifer, Sebastián, Gilson, Michel, Sara, Marc, Oswaldo, Laura, Danna, Cinthia, Marc eta Albertoren istorioa da hau. Lehen hezkuntzako 5. mailan zeudenean, Granollerseko Udalak euren ikastetxearen inguruan parke bat eraikitzen laguntzeko eskatu zien eta, hala, lanari ekin zioten. Bakoitzak marrazki bana egitetik hasi ziren, denen artean talde-proposamen bat lortu zuten arte. Udalarekin elkarlanean aritu ziren: proiektu bat taxutzen ikasi zuten, obrak bisitatu zituzten eta hasieran paperean egindako marrazki bat zena azkenean errealitate bihurtu zela ikusi ahal izan zuten. Orain, auzoko guztiek dute leku hori erabiltzeko aukera. "Erantzukizun handia zen niretzat, haur guztiek ez baitute parke bat diseinatzeko aukera", dio Oswaldok. "Ni harro sentitzen naiz bertatik pasatzen naizenean" dio Laurak. Eta baliteke istorio polit honen emaitza adierazteko modu hobeagorik ez egotea.



### *Nire ikastetxetik nire hiriarentzat*

Paper-orriz osatutako ohiko liburuak dirudite, baina argitalpen hauek bizi-bizikiak dira eta istorioez beteta daude. Esate baterako lehen hezkuntzako 4. maila ikasten ari den Alfredorena. Hauxe dio berak: "Goizero nire lagun Alexengana joaten naiz eta elkarrekin joaten gara berriketan. Bidea oso motza denez, inoiz ez dugu elkarrizketa bukatzen." Argitalpen hauetan Segoviako haurren egitekoa kontatzen zaigu, euren ikastetxetik bizi diren hiria hobetzeko lanean diharduten haurrena. Gauza ugari egin dituzte: ikastetxeko patioan esku hartu, kaleetan jolasak antolatu eta baita ikastetxerako ibilbideetan hobekuntzak proposatu ere. Liburu hauek altxor bat izateaz gainera inspirazio-iturri dira gaztetxoek ideiak, esperientziak eta proposamenak kontuan hartuta hirian esku hartu nahi duten pertsona guztientzat.



## Ikastetxerako bidea

Hauxe esango didazue, hau kale bat da, berritutako kale bat besterik gabe. Baina zera kontatu nahi dizuet: berrikuntza honen atzean pertsona askoren lana dago, baita haurrak oinez ikastetxera bakarrik joan ahal izateko proiektu bat ere. Madrilgo kale bat da hau, baina Donostiakoa, Bartzelonakoa, Sevillakoa, Kordobakoa izan liteke, hiri horietako udalek ikastetxerako bidea proiektua martxan jarri dutenez gero. Proiektu hauetan, udalaz gainera, gurasoek, irakasleek, auzokoek eta merkatariek parte hartzen dute auzoetako bizigarritasuna eta segurtasuna bermatzeko. Jaime 5. mailako ikaslea da eta gurasoak konbentzitu nahian dabil ikastetxera bere ikaskideekin batera bakarrik joan nahi duelako: "Bakarrik joan nahi dut ikastetxera, kutsadura gutxiago sortzen laguntzeko, arduratsuago sentitzeko, bidean lagunekin batera hizketan joateko, atasko gutxiago egotea lortzen laguntzeko, ondo pasatzeko eta bidea hain aspergarri ez izateko."



lehen



orain

## Haurrek plana dute

Istoria hau Cadizen gertatutakoa da, Olvera izeneko herrian. Bertan, Udalak deialdi bat egin zien haur eta gazteei hiriaz hitz egiteko eta Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berrian haiek parte hartzeko. Baliteke batek baino gehiagok pentsatzea urbanismoa helduen kontua bakarrik dela eta haurrek ez dakitela bizi diren hiriar buruzko iritziak ematen. Ba ez, ez da horrela, ezta gutxiagorik ere. Gerta daiteke gaztetxoentzat, helduekin gertatzen den bezalaxe, zaila izatea hiri-plangintzari dagozkion planoak eta hizkuntza iluna ulertzea. Baina euren hiriar buruz galdetzen diezunean, ondo asko dakite dituzten iritziak ematen eta proposamenak egiten. Olverako neska txiki hauek hauxe proposatu zuten: "Ez zaigu gustatzen autoz inguratuta egotea, ezin dugu jolasean ibili eta zarata handia dago, autorik ez dagoen plaza bat nahi dugu". Orain, haiei entzun nahi izatea besterik ez da egin behar gauzak aldatzeko.



## Zatoz, eseri eta goaz hitz egitera...

Aulkiak dira istorio honetako protagonistak. Honela gertatu zen guztia: Granollerseko Merkatarien Elkarteak, hiria zeharkatzen duen errepidean, haur, gazte eta helduentzako aulkiak ipintzen hasi zen. Errepidea asteburuetan bakarrik ixten zen ibilgailuak ez sartzeko eta horrexegatik ezin ziren eserlekuak ipini. Aulkiei esker, jendeak geldialdi bat egin eta eseritzeko aukera izan zuen, auzokoak elkarrekin hizketan hasi ziren eta txikienek leku bat zuten bertan arriskurik gabe jolastu ahal izateko. Orduan, Udalak erabaki bat hartu zuen: lehen errepidea zena oinezkoentzako kale bihurtzea. Ikusten duzuen bezala, zurezko aulki bat nahikoa da hiri oso bat eraldatzen laguntzeko.

